

B

BARREN

TOKIKOM



**Memoria egin,
lurra astinduz**

VITALDENT

Egin bakeak dentistarekin

Orain badakit
inoiz ez dela berandu
irribarre polit bat
edukitzeko

Ortodontzian
espezialistak

RPS 49/12



EIBAR
San Juan kalea, 7
943 82 18 85



**Amaia
Larrañaga**

Merezi zaban! Hala zioen Elgoibarko Izarrak 50. urteurrena ospatzeko antolatu zuen ekitaldi multzoak, eta hala izan zelakoan nago. Izan ere, euskalgintzan dihardugu-

nok, oro har, etengabeko eskean (diru eske, laguntza eske, euskaraz berba egiteko eske...) jarduten dugula uste dut, eta eske horren beste aldea ere, hau da, ematea, eskertzekoa izaten da, bai ematen duenarentzat, bai hartzen duenarentzat; ematen duenak jakin badaki eta eskearen "ordaina" dela, eta hartzen duenak ere jakin badaki emandakoaren "saria" dela.

“Zergatik ez du dakien askok euskara erabiltzen?”

Ez da izango aukerarik ez dagoelako”

Aditz hauxe bera erabili du Korrika 18k ere, alegia, *eman* euskara elkarri! eta, kasu honetan, zer eman eta euskara elkarri. Ez da, bada, gauza handia, ezta, J.Luis?

Bai Merezi zaban!-en bai Korrikan herritarron parte-hartzea izugarria izan da, beraz, hori bada zerbaiten seinale, baina, gero, egunerokoan, zergatik jokatzen da bestela? Zergatik ez du dakien askok erabiltzen, bai berba egiteko, bai irakurtzeko (egunkari, aldizkari...) bai idazteko (oharrak, emailak...) bai entzuteko (irratia, telebista...)? Ez da izango aukerarik ez dagoelako, ez horixe, egon badaude-eta.

Kontu hau dela-eta, batek baino gehiagok esaten dit ezkorra nizezela, gero eta jende gehiagok dakiela eta erabiltzen duela euskara..., eta hori ez dut ukatzen, baina askoz gehiagok erabili ahal izango luke, nahi izanez gero, eta hau ere ez dit inork ukatuko.

Zer diozu, J.Luis?



**Jose Luis
Azpillaga**

Arrazoi duzu, Amaia; izan ere, nahi izateak indar handia du. Esaerak dioen moduan: ezina ekinez egina. Horren adibide garbiak ditugu zuk aipatutako Elgoibarko Izarraren historia bera, eta baita Korrika ere. Hortaz, ados: euskaraz dakitenek nahi izanez gero, askoz gehiago erabiliko lukete euskara. Orduan, zergatik ez dute erabiltzen? Beharbada, batzuek uste izango dute nahikoa

erraztasunik ez dutela, batez ere irakurtzeko eta idazteko orduan. Akatsak egiteko beldurrak ez ote ditu euskaldun batzuk erabileratik urruntzen?

Bestalde, norberaren motibazioaz eta erraztasunaz gain, beste faktore batzuek ere eragiten dute hizkuntzaren erabileran. Joxe Manuel Odriozola euskara-irakasleak hala dio: “Hizkuntza hautua ez dago hiztunaren esku azken buruan, erabilera erregulatzen duten faktoreak estrukturalak dira, egitura soziolinguistikoari darizkionak” (*Berria*, 2013-04-03).

“Akatsak egiteko beldurrak ez ote ditu euskaldun batzuk erabileratik urruntzen?”

Edonola ere, argi dago, nire ustez, motibazioa, erraztasuna, erabilera eta egitura soziolinguistikoak ere elkarri lotuta daudela: gehiago erabiltzeak erraztasuna handitzea dakar eta egoera soziolinguistikoak ere hobera egiten du, eta horrek guztiak, era berean, motibazioan eragiten du.

Bukatzeko, Lazkao Txikiren pasadizo bat aipatu nahi nizuke. Itxura denez, behin batean zera galdetu omen zioten: “Joxe Migel, zer egin dezakegu euskararen alde?” “Euskararen alde? Hitz egin” erantzun omen zuen. Horra hor egia simple bezain biribila, ezta, Amaia?

elgoiBARREN.net

3.000 bisita astean!

Animatu eta jarri zure negozioaren iragarkia



Eska ezazu aurrekontua

943 744 112 telefonora deituz

edobarren.publi@elgoibarkoizarra.com

Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enrantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Ainhoa Mendibil
HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia
PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz
MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue
KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarriugarte, Mikel Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale
LEGE GORDAILUA SS-1.038/92
ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:

ELGOIBARKO IZARRA 50
KULTUR ELKARTEA

Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia



GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Gehiago merezi dute

Badira lau aste BARRENeko 859.alean Elgoibarko nesken futbol taldea zoriondu zutela, aurtengo liga irabazi eta Euskal Ligara igotzeagatik.

Beste kirol zein taldeetan, antzerako lorpenak izan dituztenean udaletxeko balkoian ikusi ditugu herritar guztiekien ospatzen, baina joan zen domekan, liga egun berean bukatuta eta kopa egunean bertan jasota (beste garaipen batekin), ez nuen horrelakorik ikusi.

Ez dakit nori dagokion hau antolatzea, baina uste dut neska hauek hori eta gehiago merezi dutela egindako denboraldi bikainagatik. Gainera 15 bat urte izango dira neskak mailaz igotzen ez direla, eta esan beharra dago, bere historia luzean inoiz ez dutela liga irabazi hamabost garaipen, hiru berdinketa eta bi porrotekin. Herria arrosentitzeko moduko zenbakiak, zalantzarik gabe.

Niretzako behintzat handiak zarete! Jarraitu horrela! Aupa neskak!

AA. ☺

Esker onez

Lerro hauen bidez eskerrak eman nahi dizkizuegu Mendaroko III. Mendi Lasterketa babes-tuzuzuen guztioi: Mendaroko Udala, Altzolako Urak, Landa erretegia, BERRIA egunkaria, Lafuma, Norbega, Uztargi eta Lerun tabernak, Art Fruit eta Coviran dendak, eta Iriondo Kirolak eta GYS Astigarraga Elgoibarko kirol dendak.

Eskerrik asko, era berean, batera zein bestera proba hau antolatzen lagundu diguzuen guztioi. Mila esker ibilbidea bera markatzen lagundu zeniguteno, bide bazterrek zaintzen egon zineteno, anoa postuetan egon zineteno, baserritarroi, eta losu Juaristi eta Aritz Ruiz de la Torreri, argazkilari eta esatari lanetan aritzeagatik. Eta zer esanik ez, eskerrik beroenak, zuei, partehartzaileoi, lasterketa hau antolatzen jarraitzeko indarra eman diguzuelako.

Mendaroko Txirindulari Elkarteak ☺

Jaurlaritzaren aurrekontu proiektuaren balorazioa

Hekimen elkarteak euskara hutsean ari diren berrogeita hamar hedabide baino gehiago biltzen ditu. Diru laguntzen politikari eragitea da bere asmo lehenetarikoa, eta azken hilabete honetan hainbat bilera egin ditu eragile ugariarekin,

besteak beste Eusko Legebiltzarreko alderdi politikoetako ordezkariarekin, euskal hedabideek dituzten proiektuak eta hurrengo urteetarako asmoak azaltzeko. Bilera horietan, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuen gaia izan da nagusi.

Aurrekontuen proiektuaren arabera, euskal hedabideentzat 4.875.000 euro aurreikusi ditu EAJko gobernuak, iazko kopuru bera.

Euskal hedabideek diru laguntza politika eraginkorragoa eta zabalagoa eskatu diote administrazioari behin baino gehiagotan, euskal hiztun komunitateak behar dituen eta eskatzen dituen hedabideak sendotzeko ezinbestekoa delakoan. Murrizketa etengabeko erdian iazko diru kopuruari eustea, sektorearen etorkizuna bermatzeko nahikoa ez dela jakin arren, elkarteak egindako ahalegina onartzea dela uste du Hekimenek. Euskal hedabideen garrantzia eta estrategikotasuna aitortzea, alegia. Hizkuntza Politikarako sailburuordezari hain zuzen ere horixe eskatu zion elkarteak, sektorearen egoera ulertzea, eta hurrengo urteetan elkarlanean has-teko oinarriak jartzen laguntzea. Hekimenek uste du aurrekontuen proiektuaren bidez administrazioak hedabideetan jarri duela marra gorria, eta ondo baloratu du jarrera hori.

Hekimenek garbi du, hala ere, aurrekontu hauek ez direla nahikoak sektoreak aurrera eramane behar dituen erronkei heltzeko. Azken urteetan %15 jaitsi da euskal hedabideentzako diru saila, eta publizitatean ere beherakada iragarrita dago aurtengoan. Euskal hedabideek behin eta berriro esan dute inbertsioak behar direla aurrera egiteko, aldaketa sakonena garaia baita, eta Administrazioak sektorearen garapena lagundu behar duela, diru kopuruak handituta, eta politika iraunkorragoak aplikatuta. Hori dela eta, bere prestutasuna azaldu nahi du hain garrantzitsuak izango diren hurrengo urteetan politika eraginkorrak elkarlanean sustatzeko. Elkarteak, halaber, kezkatuta agertu da euskalgintzarako diru sailek eta, orokorrean, hizkuntza normalizazioa helburu duten egitasmoek aurtengoan izango duten diru laguntzen jaitsieraren aurrean. Hekimenek, euskalgintzako parte den heinean, kezka ikusten ditu jaitsiera horrek ekar ditzakeen ondorioak, eta bat egiten du euskal eragileen artean jaitsiera horrek eragin duen ezinegonarekin.

Hekimen ☺



Aita Agirre plazako edukiontzia hobeto daude Artekaleko etxeen atzealdean: "Euskal Herriko Itzulia Elgoibarren izan zenean Aita Agirre plazako edukiontzia lekuz aldatu zituzten Artekaleko etxeen atzealdera, eta nire ustez, askoz hobeto daude han. Aita Agirre plazan badaude lurrazpiko edukiontzia, eta horrekin nahikoa traste badago ingurune horretan. Farola handi horrek ere leku asko hartzen du, eta espazioa irabaztea beti etortzen da ondo. Eskertuko genuke Euskal Herriko Itzulirako hartutako neurria behin betiko erabaki bihurtzea. Mila esker".



King-Kong zubi inguruko zuhaitzak gaixorik daudela dirudi: "Andonegitarren etxetik hasi eta Pilar ikastetxe ingurura artean zuhaitz ilara eder bat dago, baina azken urteetan gaixorik daudela dirudi. Enbor handiak dituzte, baina goiko aldetik ihartuta daude erabat. Usteldutako adarrak dituzte, eta udaberria iritsi den arren, berdetu ezinda daude. Inausketa garaia pasatu da dagoeneko, baina datorren urterako kontuan hartzeko eskatu nahi nuke. Mila esker".



Pedro Migel Urruzuno kaleko farolen argi kolorea ez da polita: "Pedro Migel Urruzuno kalean egin dituzten obren ostean oso ondo geratu da kalea. Dotore, benetan. Hala ere, farolentzako aukeratu duten argi kolorea ez zait kale dotore horretarako egokia iruditzen. Berde antzeko tonu iluna ematen du gauetan, eta etxetako fatxadek hartzen duten kolorea ez da polita. Ez dakit bonbilak aldatzea posible izango litzatekeen, baina mereziko lukeela iruditzen zait".



Ez zaigu ondo iruditzen zapatu arratsaldetan Toletxegainen trena ez geratzea: "Zapatu arratsaldetik domeka goizera arte ez da trenik geratzen Toletxegaineko apeaderoan. Kanpotik etortzen diren gazteak hobeto kontrolatzeko hartu zuten neurria, baina auzoko bizilagunei ez zaigu ondo iruditzen neurri hori. Autobusa aspalditik ez da pasatzen herritik zapatu arratsaldeetan eta orain, trena ere kentzen digute. Gazteak kontrolatzeko neurriak hartzea ondo dago, baina horregatik beste herritar batzuri kalteak eragitea ez da bidezkoa. Eskertuko genuke gai horri beste irtenbide bat ematea. Mila esker".



Enplegua sustatzeko plana jarri dute abian Debabarreneko Udalek eta Debegeesak

Enplegua sortu eta jarduera ekonomikoa bultzatu nahi dituzte

Debegeesa garapen agentziak Debabarrenean enplegua sustatzeko plana prestatu du, eskualdeko udalen laguntzarekin. Plan horrek dituen helburuen artean, enplegu-aukerak sortzea eta eskualdeko jarduera ekonomikoa bultzatzea nabarmendu dituzte sustatzailerak.

Lanbidek eginiko deialdiaren barruan kokatzen da Debabarreneko Enplegu Plana. 2012ko irailean hasi zuten planaren lehen fasea, diagnostiko sozioekonomikoa eta eskualdeko lan-merkatuaren azterketa egiteko. Udal-ordezkariekin batera, udal-terreko langileak, teknikariak, eragile sozialek, ikastetxeak eta enpresa eta arlo ekonomikoan diharduten ordezkariek parte hartu zuten. Fase hau amaitutakoan, 2013an garatuko dituzten proiektuak definitu dituzte. Besteak beste, prestakuntza ikastaroak, kontratazioak eta autoenpleguaren sustatzeko ekimenak izango dira.

Langabetuentzako ikastaroak

Debegeesak emandako datuen arabera, Debabarreneko eskualdean langabezian dauden %70 kualifikaziorik gabeko



personak dira; hau da, lehen mailako edo Batxilergorainoko ikasketak dituzte. Hala, Debabarreneko Enplegu Planak bederlatzi prestakuntza ikastaro espezializatu eskainiko ditu langabezian dauden 129 pertsonarentzat. Ikastaroak apirila eta iraila bitartean egingo dira. Hautagaien aukeraketa Lanbidek egingo du. Ikastaroetan parte hartzeko ezinbestekoa da Debabarrenean

bititza edo bertan erroldatuta egotea, eta Lanbiden enplegu-eskatzailer gisa izena emanda egotea. Informazio gehiago nahi dutenek Eibarko (943 127 239) edota Elgoibarko (943 744 425) bulegoetara jo dezakete edota www.lanbide.net atarian kontsultatu. Ikastaroez gain, autoenplegua eta enpresa-proiektu berrien sorrera bultzatuko dute.

Maiatzerako egongo da prest taxi geltoki berria



Taxi geltokia Maalako errotondara lekualdatzeko lanak hasi dituzte dagoeneko, eta maiatzerako prest egongo dela aurreratu dute arduradunek. Errotonda apur bat txikitu dute, tamaina handiko ibilgailuentzako pasabidea errazteko eta taxientzako lekua egokitzeko. Zortzi taxientzako geltokia prestatuko dute. Gaur egun San Frantzisko iturriaren aurrean dago taxi geltokia, eta obrak amaitu ostean Udaltzaingoaren autoak aparkatzeko erabiliko dute gune hori. Era horretan, zamalanetarako aparkalekuan espazioa irabaziko da.

Izena **Iñaki San Martin ‘Soarte’**



GaudiRfoto argazki lehiaketan saritu dute Iñaki San Martin *Soarteren* lan bat. Bilbon ateratako argazki bat aurkeztu zuen Soartek Hiriko Paisaiak atalerako eta zilarrezko domina eman diote. Nazioarteko lehiaketa da Reuseko (Katalunia) Fotoartreus elkarteak antolatzen duena, eta aurtengoan 60 herrialdeetako 500 argazkilari baino gehiagok hartu dute parte. Epaimahaikideek 5.299 argazkiren artean aukeratu dituzte onenak. Saritutako lan guztiak apirilaren 30ean jarriko dituzte ikusgai <http://www.fotoartreus.cat/info/> webgunean. Udan bestalde, argazki erakusketa egingo dute Reusen bertan.

Irudia **Eguzki lantegiko langile ohiak**

1956an sortu zuten Eguzki tailerra Elgoibarren, Santa Ana kaleko Eroski dagoen lekuan. Eta hantxe bertan batu dira 57 urte beranduago, lantegiko sortzaileak eta han lanean ibilitakoak. Garai bateko kontuak ekarri dituzte gogora, eta ondoren, bazkaritara joan dira denak elkarrekin. Garrantzi handiko tailerra izan da Eguzki Elgoibarren, kooperatibismora batu zen aurrenetarikoa izan zelako. Danobat sortu eta bi urtera sortu zuten Eguzki (Construcciones Mecanicas Eguzki), Estarta y Ecenarrotik eta Danobatetik zetozen hainbat langilek. Arzteko makinak egiten zituzten eta tornuak egiten espezializatu ziren. Handik lau urtera, 1961ean, gaur Gaztetxea dagoen gunera lekualdatu zuten Eguzki tailerra. 1969an, berriz, arzteko makinak egiten zituzten beste bi enprekin fusionatu zen: Danobat eta Acme-Deba. Bateratze horren emaitza izan zen Danobat S. Coop, gaur egungo DanobatGroupen aurrekaria.



Ate irekien eguna egingo dute bihar IMHn

Apirilaren 22an hasiko dira Lanbide Heziketako jardunaldiak, eta jardunaldi horien barruan, ate irekien eguna egingo dute bihar IMHn. Heziketa Zikloen eta Ingeniaritza Dualaren inguruko informazioa emango dute ikastetxeko arduradunek eta instalazioak bisitatzeko aukera ere egongo da, 11:00etatik aurrera. Maiatzaren 15ean, 25ean eta ekainaren 12an ere egingo dituzte IMHn ate irekien egunak. Meka Lanbide Eskolan, bestalde, maiatzaren 17rako antolatuko dute ikastetxea ezagutzeko saioa.

Mobilizazioak antolatu ditu LABek, metalgintzako “hitzarmen duinaren alde”

Metalgintzako hitzarmen “duin” baten aldeko negoziazioetan ari dira sindikatuak eta Adegri patronala, baina oraindik ez dute akordiorik lortu. Hori dela eta, Debababarreneko LAB sindikatuak mobilizazioak antolatu ditu. Apirilaren 24an kotxe karabana egingo dute, 8:30etik aurrera. Eibarren irten eta Itziarreraino joango dira. Horrez gain, egoeraren berri emango dute bailarako herrietan, apirilean eta maiatzean zehar. Elgoibarrera maiatzaren 10ean etorriko dira.

Enpresentzat laguntzak eskatzeko, ‘Innova txekea’

Innova Txekea programa jarri du abian SPRIk, enpresa txiki eta ertainetan berrikuntza eta lehia-kortasuna hobetzeko. Debabarrean Debegesak kudeatuko du dirulaguntza hori, eta informazioa emateaz gain, eskaerak bideratuko ditu. Interesatuak apirilaren 15etik ekainaren 7ra arte izango dute eskaerak aurkezteko epea. Informazio gehiago eskuratzeko 943 820 110 telefonora deitu edota pymes@debegesa.com helbidera idatzi daiteke.

ENEKOITZ LAZAROBASTER

Umetatik datorkio Enekoitz Lazarobasterri txirrindularitzarako zaletasuna (Mendaro, 1979). 1999an Euskal Bizikletan hasi zen lanean, erreguladore lanetan, eta orduan hasi zen hartuemanetan Eibarko Txirrindulari Elkartearekin. Elkartean, 2002an sartu zen bete-betean. Zuzendaritza kide izan da ordutik, eta aurten, Valentziaga Oroitzarreko antolakuntza taldeko zuzendari izendatu dute.



Ainara Argoitia

Enekoitz Lazarobaster, Ixuan gora, aurtengo Valentziagan.

“Hemengo afizioa munduko onena da, baina txirrindulari gazteak falta dira”

Erreguladore aritzen zinen orain arte Valentziaga Oroitzarrean. Orain antolakuntza taldeko zuzendari zara. Peol izatetik gerente izatera pasatu zara kolpetik. Nola daramazu?

Jajaja. Euskal Bizikletan hasi nintzen erreguladore lanetan, eta gaur arte hor ibili naiz, lasterketako autoak zuzentzen. Lasterketa egunera arte ez nintzen ezertaz kezkatzen. Zuzendaritza taldekoa nintzen, eta ahal nuen laguntzen nuen nik ere, baina lan karga handiena bi laguneren artean eramaten zuten. Orain, berriz, hemen nabil burubelarri. Ez da lan astuna, baina bai urtean pare bat hilabete kenduta egunero egin beharrekoa. Lasterketa aurreko hiru hilabeteak egiten dira zailenak. Egunean orduerdiko lana bada ere, beti dago zerbait egiteko.

Zure aurrekoak, Jose Antonio Larreak, 33 urte egin ditu zuk hartu berri duzun karguan. Horrenbeste urte egin dituen bat ordezkatzek ez du bertigorik ematen?

Bai edo. 33 urte halako kargu batean urte asko dira. Valentziaga Oroitzarrearen antolakuntza taldeko zuzendariaren lana ez da taldeei deitu, Federazioko tramiteak bete eta txirrindulariak ekartzera mugatzen. Zaindu beharreko detaile asko daude, eta Valentziagak gaur daukan izena baldin badauka, zerbaitengatik da. Eibarren garrantzia handia eman zaio beti tratua gertukoia izateari. Afizionatuak lasterketarik garrantzitsuena da Valentziaga Oroitzarrea estatuan, eta hori igartzen da kanpoan. Espainiako Kopako beste karrera batzuetara joaten garen erreegen pare hartzen gaituzte, eta

halakoetan jabetzen gara zer garen. Eta hor gauzak ondo egin diren seinale da. Deitate txikiak egiten dute berezi Valentziaga. Noiz hasten zarete lanean? Zenbat jende behar da egun bateko lasterketa antolatzeko? Valentziaga lasterketa jokatu eta hilabete eta erdi ingurura amaitzen dugu edizio hortako lana. Orain, adibidez, diru kontuak ixten ari gara, azkeneko ordainketak egiten eta. Eta hilabete inguruko atsedeenaren ostean hasten gara gero hurrengo urtekoa lotzen. Lanean, berriz, egunean bertan ehundik gora lagun ibiliko gara, gutxien-gutxienez. Lasterketa egunean, lotura-motoetarako bakarrik 34 lagun behar dira, eta beste sei lagun behar dira epaile eta erreguladore lanetarako eta denborak hartzeko. Atera kontuak!

Lanak baino gehiago ardurak nekatzen du sari. Azken egunetako atzera-aurrerek loa ere galduarazi dizutela aitortu duzu.

Bai, bai! Edadekoen antzera ibili naiz! Oso gogorra egin zait. Dena den, nik uste dut lasteketa aurreko astean bizi izan dudan hori nire aurrekoak 33 urte hauetan beti sentitu izan duela, astebetere faltan. Ohera joan eta lo egin ezin hori... horrenbeste gauza buruan bueltaka... Gauza asko dira lotu beharrekoak. Koadernotxo txiki bat eramaten dut beti aldean, eta gogoratu ahala hantxe apuntatzen ditut gauzak. Berdin da goizeko ordubiak izan edo gaueko hamarrek. Horixe da ordenagailurik onena. Askotan sentitzen duzu ez zarela gai izango gauza guztiak errenditzeko, baina beti gara gai.

Laguntza teknikoko zerbitzuan (SAT) diharduzu lanean urte askoan. Zuri entzuna da urtean astelehen gutxi batzuk kenduta, aste gehienak aireportuan hasten dituzula lan kontuengatik. Eskarmentu horrek balio izan dizu zerbaiterako kargu berrian?

Beti da lagungarri. Bileretan behin baino gehiagotan esaten da 'halako hari deitu behar zaio, baina nola deituko diogu ba?'. Beldur horiek aspaldi galdu nituen nik! Laguntza teknikoko zerbitzuan dihardugunok ohituta gaude etxetik kanpora bakarrik egoten eta sortzen diren arazoentzat konponbidea bilatzen. Horretan behintzat zailduta gaude.

Txirindularitza inon bizi bada Eibarren bizi da. Zer diozu?

Ikaragarria da. Afizio handia dago, eta hori igartzen da publizitatearen lortzeko orduan ere. Udala bera ere oso ondo portatzen da, eta baita inguruko enpresa eta bestelako saltoki edo denda txikiagoak ere.

Afizionatueta lasterketarik inportanteena da Valentziaga Oroitzarrea, baina aurretik bazen Eibarren ospe handiagoko itzuli bat: Euskal Bizikleta. Galdu zen, baina. Nola bizi izan zenuen etapa hura?

Politikak eta diruak agintzen du hemen, eta zer egingo diogu ba!. Euskal Telebistakoak aspaldi zebiltzan esan eta esan bi lasterketak mantentzeak [Euskal Herriko Itzulia eta Euskal Bizikleta] kostu handia zuela eta bakarren alde egin behar zela, bestela biak galtze-

ko arriskua zegoelako. Rifi-rafe dezentekoa egon zen, ez Euskal Herriko Itzuliaren antolatzailerik eta ezta Euskal Bizikletaren antolatzailerik ere ez zutelako euren galdu nahi, baina beste irtenbiderik ez zegoen eta Euskal Herriko Itzuliaren alde egin zen, trukean, hori bai, urtero etapa bat Eibarren, Arraten, amaitzea hitzartu zuten. Nolanahi ere, galera handia izan zen, bai, bereziki eibartarrentzat.

“Valentziaga Oroitzarrea erakusleihu bat da txirindulari afizionatuentzat”

Txirindularitzak ez du sasoirik onena bizi. Beste leku askotan bezala, dirua urri dabil bazterretan, eta gainera, ezin esan azkeneko urteotan oso publizitate ona egin zaionik ere.

44.000 euroko aurrekontua geneukan, eta 10.000 euro gutxiago izan ditugu aurten gutxi gorabehera. Espainiako Kopako lasterketa guztietan egon da jaitsiera. Guk denean estutu behar izan dugu, eta pentsa! Sariak kentzeko aukera ere aztertu genuen!

Horixe galdetu behar nizun. Edozein herri lasterketetan sari handiagoak daude ia-ia. Hala ere, 28 taldek parte hartu dute. Zer beste pizgarri du Valentziagak?

Sarienean arrazoia duzu. Espainiako Federazioan sekulako zorra dute, eta aurreko presidentek agindu zituen gauza batzuk, baina gero hauteskundeetara ere ez zen aurkeztu eta hor gelditu zen dena, ezerezean. Presidente berriak dio hiru milioi euroko zorra dagoela eta ondorioz ez du zentimo bat ematen, nahiz lasterketak euren izena daukan: Espainiako Kopa. Irtenbide bakarra geneukan: txirindularitza taldeak, antolatzailerik... denok batu eta pentsatu: 'Ia, lasterketei eutsi nahi badiegu zer egin behar dugu gutako bakoitzak?'. Hala ere, 28 taldek parte hartu

dute aurten, 196 txirindularik (gehienez, 200eko tropela osatu daiteke), eta gonbidapena eskatua zuten talde asko laga behar izan ditugu kanpoan. Valentziaga sekulako eskapate da txirindulari afizionatuentzat, eta nahiz eta azkeneko urteetan talde eskasiatik oso zaila dagoen profesioaldera salto egitea, Valentziaga bada erakusleihu bat. Palmasesari begiratzea besterik ez dago. Hemen irabazitakoak dira, besteak beste, Unai Osa (1996), Oscar Freire (1997), Joaquín Rodríguez (2002), Mikel Nieve (2007)... **Espainiako Kopako egutegian Valentziagaren maila bereko zortzi lasterketa daude, eta horietako hiru Gipuzkoan jokatzeko dira. Horrek ere esan nahiko du zer bait.**

Horrek dena esaten du. Afizio handia dago, eta afizioa dagoen lekuan babesleak lortzea beti da errazagoa.

Afizionatuen lasterketa bat izateko, ez du ibilbide gogorregia Valentziaga Oroitzarreak?

Ibilbideagatik, lasai asko izan zitekeen profesionalen lasterketa bat, bai. Oso gogorra da, baina ez ezinezkoa. Hori bai, ni seguru nago profesionaleri jarriz gero ibilbide hau ez luketela afizionatuek egiten duten bezain gogorra egingo. Proba egiteko modukoa da!

Egiguzu txirindularitzaren erradiografia bat.

Euskal Herriko afizioa munduko onena da, baina txirindularirik apenas dagoen behetako mailetan. Kadeteetan eta jubeniletan oso jende gutxi dago, eta nik uste dut horren atzean bi arrazoi nagusi daudela: batetik, txirindularitzari egin zaion publizitate txarra, eta bestetik, gurasoek beste kirol batzuetara bideratzen dituztela seme-alabak. Baloirik garestienak 40 euro balioko ditu, eta bizikleta eskasena, berriz, 600 bat euro. Eta jakina, bizikleta bat erostea, seme-alabari benetan kirol hau gustatuko zaion jakin gabe... Eta horri gehitzen badiogu txirindulariek taldea topatzeko dituzten zailtasunak... Baina hori kirol honi egin zaion publizitatearekin dago lotuta.

Orain hartu berri duzun karguan zein helburu jarri diozu zeure buruari?

Nire aurrekoek orain arte egin dutenari eutsi eta lehengo aurrekontuetara itzultzea.



Jabi Olaberria eta Maite Maiora nagusi Mendaron

Korrikarako aukeran beroegi izan zuten domekan Mendaroko mendi lasterketan izena eman zuten 150 lagunek, eta nabari zitzaien, bai, helmugan. Jabi Olaberria, munduko kopan laugarren sailkatu den korrikalari orozkoarra izan zen helmugaratzen lehenengoa, 1:58:35eko denborarekin. Juanjo Igarzabal sailkatu zen bigarren, ia hiru minutura, eta Igon Manzisidor debarra izan zen hirugarrena. Emakumezkoetan, erraz nagusitu zen Maite Maiora mendaroarra, hirugarren urtez jarraian. Maiorak errekorra ontzea lortu zuen, gainera (2:18:26). Mainer Calleja eta Jone Urkizu sailkatu ziren bigarren eta hirugarren. Argazki gehiago: www.ElgoiBAREN.net helbidean.



Jone Urkizu, maldan gora.



Mikel Albeniz, aurretik.




Jabi Olaberria, helmugan.



Maite Maiora, iloba Jokinekin.



Igon Manzisidor helmugan sartzen, semea atzetik duela



Igor Ezenarro, bidea zabaltzen.



Sarituak, Sonia Garcia alkatearekin eta Ander Zulaika Mendaroko Txirindulari Elkartearen presidentarekin

Erretratu zaharra



1955

Señorita Anitak San Roken zeukan akademiako ikasle talde bat ageri da erretratuan, 1955. urte inguruan. Elgoibarko industriaren gorakada hasita zegoen ordurako, eta Pilarreko edo Eskola Publikoko ikasketa arautuak bukatu ostean, herriko neska-mutil asko Señorita Anitaren akademiara joaten ziren enpresarako administrazioko kontuak eta Batxilergoa ikastera. Langile nekazeari zen Señorita Anita. Elgoibarko enpresen garapenerako harrobia izan zen bere akademia eta horregatik diote Anita XX. mendeko Elgoibarko emakume garrantzitsuenetako bat izan zela.

Goian: Elisabeth Perea, Josefina Astigarraga, Txus Osoro, Ana Mari Otaegi, Karmen Oleaga (†), Mertxe Iribarren eta Pepita Astigarraga (†). **Erdiko ilaran:** Maria Luisa Estarta, Rosa Mari Riaño (†), Pilar Zabaleta, Señorita Anita, Mari Karmen Zubiaurre, Isabel Urrusolo, Ana Mari Mata, Maria Jesus Mujika, Gloria Galdos (†). **Behean:** Pilar Fernandez, Angel Mari Ansola, Maria Luisa Berredo, Angeles Zabaleta, Maria Luisa Inza.

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49 -1

Tel: 943 741 189

Jarri ezazu zure publizitatea
BARRENen edo www.elgoiBARREN.net
 webgunean

BARREN
 astekarian
 943 744 112
barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Ligako txapelidunak!

Txapelketari bikaina egiten dihardu Concepto Egile areto futbol taldeak, eta denboraldia biribiltzeko liga irabazi zuten joan zen zapatuan. Lehenengo aukeran kale egin bazuten, bigarren goan ez zuten hutsik egin elgoibartarrek: Hiruna berdindu zuten zapatuan Zierbena bigarren sailkatuaren kontra, eta puntu horri esker liga txapelketa irabazi dute. Partida gogorra izan zen. Elgoibartarrak galtzen hasi ziren, eta lehen zatia amaitu aurretik 2-1 irabazten jarri baziren ere, 2-3 galtzen iritsi ziren atsedenaldira. Hiru minutu falta zirela Zierbenako jokalaria batek bigarren txartel horia ikusi zuen, eta jokalaria bat gutxiagorekin geratu ziren bizkaitarrak. Bi minuturen faltan sartu zuten elgoibartarrek berdinketaren gola. Partida amaitu zenean, festa nagusitu zen Olaizaga kiroldegian. Maiatzean jokatu du Concepto Egilek bigarren mailara igotzeko fasea.





JOSE RAMON IRIARTE

CD Debabarrena klubeko presidentea

Bigarren goan ez duzue hutsik egin, baina kostatako garaipena izan zen zapatukoa. Nola ikusi zenuen taldea?

Gauza asko zeuden jokoan: liga txapelketa batetik, Zierbenaren igoera faserako txartela bestetik, eta gainera euskal derbia zen. Horrelakoetan joko ona ikustea zaila izaten da, bi taldeek errespetu handiz jokatzen dutelako. Gure taldea, gainera, ez dago hainbeste ikusleren aurrean jokatzerara ohituta, eta animuak eman arren, zama handia ere sentitu zuten jokalariek. Laburbilduz, ikusleek gozatu egin zutela esango nuke, eta epaileak partida amaitu zuenean denboraldian eginiko lana ospatzeko unea iritsi zen. Eskerrak eman nahi dizkiet kiroldegira etorri ziren guztiei.

Zein izan da denboraldi honetako sekretua?

Jokalaria homogeneoekin osatutako taldea batetik, eta entrenatzaileen lana bestetik. Inor gutxietsi gabe, Juanan Rodriguez entrenatzailearen lana nabarmendu nahi dut. Kirol hau maite du. Era berean, lehen taldeak hartu duen konpromisoa, zuzendaritzaren inplikazioa eta gainerako taldeen babesa ere eskertzekoa da. Udala eta Kirol Patronatuari ere eskerrik asko, eta mila esker Gipuzkoako Foru Aldundiari ere bai.

Bigarren mailara igotzeko fasea jokatuko duzue maiatzean. Igotzeko aukerarik ikusten duzu?

Arerio gogor baten kontra jokatu beharko dugu. Beste multzo bateko lehenengo sailkatuaren kontra edo bigarren baten kontra jokatzea tokatuko zaigu. Gure esku dago. Jokalariak ilusioz daude, eta igotzeko aukerak ditugula uste dugu. Gogor ari gara lanean, eta bai, mailaz igotzea posible dela sinistuta nago.

Taldeak badauka bigarren mailan lehiazeko aukerarik?

Kirol alorrean, uste dut bigarren mailari aurre egiteko moduko taldea daukagula. Aurrekontuaren arabera jokalaria aldatetaren batzuk egin ahal izango genituzke. Ekonomikoki ez gaude ondo, eta lanean ari garen arren, egoera zaila da. Lerro hauek aprobetxatu nahi ditut herriko norbanakoei eta enpresariei laguntza eskatzeko. Apirilaren 27an Gehituz karpa jarriko dugu bigarren urtez Maalan eta herritaren han parte hartzeko deia egin nahi diet. Laguntza guztiak, txikiak izan arren, ongi-etorriak izango dira.



JOSE MARTIN URRUTIA

‘LURRA ASTINDUZ’ ANTZEZLANAREN ZUZENDARIA

“Nazionalen garaipenaren osteko egunen kontakizuna da ‘Lurra astinduz’”

Jose Martin Urrutia *Txotxek* Taupadan eman zituen aurreneko pausok antzerkiaren munduan, eta Ekekei taldean aritu zen gero. Duela hamabost urte, berriz, Karrika antzerki talde amateurra sortu zuen Durangon, beste hainbat lagunekin batera, eta zuzendari eta gidoilari da egun. Gaur zortzi, hilaren 26an, *Lurra astinduz* obra taularatuko dute Elgoibarko Herriko Antzokian (20:30). 1936ko gerra ostearren gaineko lana da, amodiozko istorio batetik abiatuta memoria historikoa sustatzeko idatzitako kontakizuna.

‘Lurra astinduz’ lanarekin zatozte. Zer eman nahi duzue aditzera izenburu horrekin?

Izatez Durango 1936 kultur taldearen enkarguz egindako lana da hau, eta izenburua metafora bat da. Guk ezingo ditugu gorpua desobiratu, baina bai orduko gertakari krudelak bizi izan zituztenen istorioak azalera ekarri, eta horixe da egin nahi izan duguna.

Garai historiko beraren gainean egin duzuen bigarren lana da hau. Nolatan?

Ameriketara nengoela idatzi nuen testu hau. Nire ama Elgoibarren bizi izandakoa bada ere, izatez Durangon jaioa da, eta gure etxeko sukaldean oso presente izan dugu beti Durangoko bonbardaketa. Eta har horrekin idatzi nuen *Martxoak 31* testua, 2007an Durangoko bonbardaketaren 70.



urteurrenaren harira estreinatu genuena. Antzezlan horretan bonbardaketaren aurrerakariak eta eguna bera eraman genituen taula gainera. Eta lan horretan kontaketa Durangoko bizilagun askok tren hartu eta Bilborantz edo nazionalak hartu gabeko lekurantz alde egiten duten unean uzten dugu. Ikuskizun hark oso harrera ona izan zuen, baina kontaktzen segitzeko gogoare-

kin gelditu ginen. Eta hala geundela talde honen proposamena jaso genuen. Lan honetan Durangoko geltokira bueltatzen gara, eta handik abiatuta, bonbardaketa osteko egunen eta nazionalen garaipenaren osteko egunen kontakizuna egiten dugu, amodiozko istorio bat baliatuta. Ihes egindakoek etxera itzultzean topatzen dutena kontaktzen dugu, bizipenetan oinarrituta.

Amodiozko istorio batek nekez leundu dezakeena hortaz.

Bai. Galtzaileak dira, asko erbesteratu egin behar izan dira, familietan jendea falta da, eurek utzi zuten lekua faxisten esku dago... eta horri guztiorri emakumearen papera gehitzen diogu, beste istorio gehienetan gertatzen den bezala, halaberrez protagonista bihurtzen direlako emakumeak: asko alargunak dira, gizona kanpoan edo kartzelan dute beste askok, familiak zatituta daude... eta euren bizkar gainean gelditzen da aurrera egiteko ardura. Eta guk horixe azpimarratu nahi genuen. Horregatik diogu obrak emakume gorputza duela.

“Emakumeen papera azpimarratu nahi izan dugu. Obrak emakume gorputza du”

Zorionekoa zara etxean jaso baduzu 36ko gerraren berri, familia askotan isildu egin duten gaia delako hau. Zuk zuzentzen duzun taldean jende oso gaztea dago. Nola landu duzue gaia?

Durango lan handia egin du 1936 taldeak testigantzak batzen, eta gure lehenengo egitekoa horiek entzutea izan zen. Errepresio gordinaren eta erresistentzia gogorraren gaineko pasarteak dira. Gerraren gaineko informazioa mahai gainean jarri genuen taldean, eta banaka zein taldean landu genuen gaia. Harrigarria izan zen taldeko gazteenek nola bizi izan zuten prozesu hori. Grabazioak entzun genituen, bideoak ikusi, eta askok negar malkotan amaitu zuten. Lekukotzak hain dira errealak, hain dute indar handia... jendeak ezin diola emozioari eutsi! Izugarria da! 36ko gerra urruti dago denboran, baina gertutik bizi dugun kontua da, eta ikusgarria izan da nolako konpromisoa hartu duen taldeko jendeak hori guztia berriro gogora ekartzeko. Batetik, gertaerak daude: errepresioa, fusilamenduak, kartzelatzeak... baina, bestetik, eta apur bat arakutzen baduzu, badaude bestelako istorio gordinak ere: lurjabetzeak, familia harremanak... Nire aitti-

ttak, esaterako, Frantziara erbesteratu behar izan zuten, (Mexikon hil zen gero) eta nire amama bueltatu zenean bere amana sei seme-alabarekin, amak ez zuten etxean hartu, beldurragatik. Sekulako odiseak bizi behar izan zituzten. Guk istorio horiei beste ukitu bat eman behar nahi izan diegu obran.

Zein?

Gerra antifaxista bat izan zela azpimarratu nahi izan dugu eta ez horrenbeste Espainiaren eta Euskal Herriaren arteko gatazka, testigantzetan ere horixe isladatzen delako.

Durango Gernikaren itzalean gelditu izan dela iruditu zait beti. Kontrara, beti pentsatu izan dut bonbardatutako beste herri batzuen aldean, herri ekimenetik izugarri gauza ederrak sortu dituztela Durango. Zer diozu?

Bigarren planoarena hala da, baina hori bera gertatu zaio Bartzelonari ere. Durango asko landu dute gai hau. Tabu batzuk kendu, beldurra galdu eta desobiratzeekin egiten ari diren moduan, jendea hasi da bazterrak mugitzen eta azaleratzen gertatu zen guztia. Nik 27 urte daramatzat Durango lanean, eta bai, zuk diozun moduan, herri ekimenetik sortu dira memoria historikoa berreskuratzeko ekimen asko, eta gero, hein batean, instituzioak behartuta sentitu dira.

Irakaslea zara. Iruditzen zaizu eskolan behar bezala landu den gaia dela memoria historikoarena?

Beharbada ez, baina egia da, era berean, materiala oraintxe ari direla errebisatzen eta oraintxe ari garela benetan gertatu zenaren berri izaten. Bi belaunaldi behar izan dira gauzak azaleratzeko, ia 70 urte, eta iruditzen zait orain arte ez dugula informazio osorik izan, hurrengo belaunaldia behar bezala informatzeko. Horregatik ez da gai samurra izan eskolan lantzeko, eta, gure aurrekoek gogorik ere ez dute izan, gainera, gertatu ziren gauza mingarriei izena jartzeko. Hala ere, benetan mirestekoa da urte guzti haietan eusteko erakutsi zuten adorea eta gero lehengora bueltatzeko egin duten lana. [Paul] Prestonek esaten zuen Espainian holokaustoa egon zela gerra ostean. Pentsa ezazu!

Zer da zuretzat antzerkia?

Bizitzeko modua dela esango nuke. Beti iruditu izan zait oso tresna interesgarria eskola esparruan ere erabiltzeko, eta horretan ari naiz. Ikastolan ere antzerkiarekin lotutako proiektu bat zuzentzen dut.

Antzerkiak ere ez ei du garairik onena bizi,

baina buruan beti izaten dira proiektuak, hala ere. Zer darabilzue zuek bueltaka?

Inungane, sustraiak airean lana estreinatu berri dugu, immigrazioaren gaineko gogoeta lan bat.

Lurra, sustraiak... identitatea. Ez dituzue edozelako gaiak aukeratzen.

Bai, gai sozial pisuzkoak gustatzen zaizkigu. Aurrekoa prostituzioaren gainekoa izan zen. Gustatzen zaigu pil-pilean dauden gaiei heletzea. Erronka bat da guretzat.

Elgoibarrek ere badu memoria historikoa lantzen ari den talde bat: Elgoibar 1936. Eta hemen ere bada zer azaleratua. Inoiz pasatu zaizu burutik hemengoari buruzko lanen bat prestatzea?

Inoiz egin dut berba Iñakirekin [Odrizola] eta badute komikietara-eta eraman izan den pasarte oso polit bat taula gainera eramateko modukoa, baina ez dugu aurrera egin. Ez daukat astirik.

Asko bidaiatutakoa zara zu. Lagungarri izan zaizu antzerkirako?

Bizikletan bidaiatzeak, beste ezeren gainetik, lasaitasuna eman dit niri, hausnartzeko patxada. Etiketarik gaudenetan, sentiberago ere izaten gara, eta urruntasun horrek beste perspektiba bat ematen digu hemen bertako gaiak lantzeko. *Martxoak 31* lana adibidez Perun amaitu nuen idazten. *Lurra astinduz*, berriz, Elgoibarren bukatu nuen, baina Almerian hasi.

“Ia 70 urte behar izan dira gauzak azaleratzeko eta ez da gai samurra izan eskolan lantzeko”

Kuriosoa da oporraldia baliatzea halako gai sakonez hausnartzeko.

Bai? Niri gustatzen zait. Hemen egunerokoak jaten nau, eta kanpoan badaukat denbora hori. Kuriosoa da ikustea, gainera, guri gertatu zaizkigun gauzak beste leku askotan ere gertatzen direla.

26.138 euroko diru-laguntza emango die Udalak ikastetxeei 2013ko hainbat proiektu eta egitasmo finantzatzeko

Institutuak, Ikastolak, Herri Eskolak eta Mekak jasoko dute dirua

Ekarlanerako hitzarmena sinatu zuten martitzenean Elgoibarko Udalak eta herriko ikastetxeek. Horren arabera, 26.138 euroko diru-laguntza emango die Udalak ikastetxeei, 2013ko hainbat proiektu eta egitasmo finantzatzeko. Elgoibar Ikastola, Herri Eskola, BH Institutua eta Meka izango dira diru hori jasoko dutenak. Diru-laguntza Udaleko hiru sailetatik bideratuko da: Ongizate Sailak 16.391 euro bideratuko ditu ikastetxeetara, Osasunaren Hezkuntza programa gauzatzeko. Euskara Sailak 6.300 euro emango ditu eta, besteak beste, esko-



luz kanpoko egonaldiak, ahozkotasuna eta bertsogintza egitasmoa eta euskara sustatzeko jardunbideak finantzatzeko erabiliko da diru hori. Gazteria Sailak 3.447 euro emango ditu, Gaztematika (Gipuzkoako haurrentzako eta gazteen-

tzako sustapen sistema) egitasmorako. Diru-laguntza horiez gain, Berdintasun Sailak eta Enplegu Sailak diru partidabat izendatu dute eskoletan sail horien helburuekin bat datozen ekintzak abian jartzeko.

'Arte eszenikoen agerraldia' antzezlana aurkeztuko du Taupadak maiatzaren 3an



Taupada antzerki taldeak *Arte eszenikoen agerraldia* izeneko antzezlana estreinatuko du maiatzaren 3an, Herriko Antzokian. Azken urteotako ohiturari eutsiz, herriko hainbat lagunek parte hartuko dute ikuskizunean. Antzerkia, dantza, musika eta bertsoak uztartzen ditu lanak, eta esketx laburrak eta bakarrizketak dira antzezlaren muina. Apirilaren 22tik aurrera jarriko dituzte sarrerak salgai, sei euroan, Pitxintxu dendan. Dena dela, egunean bertan ere erosi ahal izango dira sarrerak Herriko Antzokiko leihatilan. 22:00etan hasiko da ikuskizuna eta ordu eta erdiko iraupena izango du.

Omenaldi xumea

Antzezlana amaitzean, bestalde, 36ko gerra ostean Elgoibarren antzerkigintzan jardun zuten lagunak omenduko dituzte. Grupo Artistico Elgoibarrés *Compañía Petachos* izeneko taldeak zarzuela eta antzezlana asko egin zituen garai hartan eta talde hartako kideei errekonozimendua adieraziko diete.

Kale Kantarien entsegua gaur arratsaldean

Kale Kantariak entsegua egingo dute gaur, 18:30etik aurrera Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Kale Kantariak apirilaren 27ko ferian irtingo dira kantuan, 12:00etan.

Bideo forum saioa antolatu du Haizeak gaur gauerako

Haizea Emakume Taldeak bideo forum saioa antolatu du gaur gauerako. *Conociendo a Jane Austen* pelikula ikusiko dute, eta ondoren tertulia saioa egingo dute Loredi Salegi dinamizatzaileekin. 21:30ean izango da, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Antolatzaileek kafea eta pastak eskainiko dituzte.

Piano eta bibolin kontzertua musika eskolan

Piano eta bibolin kontzertua antolatu dute Inazio Bereziartua musika eskolan gaur arratsalderako. Olatz Ruiz de Gordejuela mendarorak bibolina joko du, eta Itziar Beitia azkoitiarrak pianoa. 19:30an izango da kontzertua, musika eskolako auditorioan.

Zuberoako Maskaradak ikusteko irteera antolatu dute Elgoibarko Izarrak eta Haritz dantza taldeak

Apirilaren 28an egingo dute irteera

Haritz Euskal Dantzari Taldeak eta Elgoibarko Izarra Kultur Elkartek Zuberoara joateko plana prestatu dute apirilaren 28rako. Elgoibarko Izarraren 50. urteurrena ospatzeko prestatutako urte osoko programazioaren barruan antolatu dute Maskaradak ikustera joateko irteera. Autobusean joango dira Zuberoaraino, eta prezioa 12 eurokoa izango da. Kalegoen plazatik irtengo dira 09:00etan, eta Elgoibarrera 22:00ak aldera bueltatzea espero dute. Bazkaria norberak eraman behar du etxetik. Izena Elgoibarko Izarrak Ubitarten duen bulegoan eman behar da, apirilaren 24a baino lehen. Bulegora joateko aukerarik izan ezean 943 741 626 zenbakira deitu-



ta edo elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com helbidera idatzita ere eman daiteke izena.

Aurtengo Maskadaren inguruko in-

formazioa iparraldekohitza.com eta dantzan.com atarietan aurkituko duzue, eta Wikipedian daukazue Maskaradei buruzko informazio zabalagoa.

Oiartzungo auresku eta soinu zahar txapelketan hartu dute parte Elgoibarko dantzariak



Oiartzungo auresku eta soinu zahar txapelketa jokatu zuten domekan, eta Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako ordezkarien artean Oihane Agirrebeña eta Alaitz Egaña izan ziren. Alaitz Egaña hirugarren egin zuen bere mailakoen artean, eta Oihane Agirrebeña bosgarrena izan zen bere mailan. Inazio Bereziartua eskolako arduradunen arabera, bi dantzariak maila ona eman zuten txapelketan. Maiatzaren 12an izan da auresku eta soinu zahar txapelketako finala Legazpin, eta bi dantzari hauek final horretan egoteko aukera handia dute. Apirilaren 27an jokatuko da txapelketako azken kanporaketa, Billabonan, eta ondorengo elgoibartarrek hartuko dute parte: Amaia Astigarragak, Maialen Loiolak, Leire Astigarragak eta Eneko Gonzalezek.

Zabalik dago Foru Aldundiaren 'Gazte oporraldian' izena emateko epea

14 eta 17 urte bitarteko gazteentzako oporraldia antolatu du Foru Aldundiak eta dagoeneko zabalik dago izena emateko epea. Bana-ka, binaka edo hirunaka eman daiteke izena, eta izena ematen duten guztien artean zozketa egingo dute plazak banatzeko. Adinaren arabera, leku desberdinak izango dituzte aukeran; hala nola, Zarautz, Zuhatza, Son Bou (Menorca), El Guijo de Avila (Salamanca), Navarredondo de Gredos (Avila)... Interesatuak apirilaren 21era arte dute izena emateko aukera. Haurrentzako eta gazteentzako informazio bulegoan (Gabriel Kurutzelaegi, 10) edo Internetez www.gipuzkoagazteria.net web orrian eman daiteke izena.

Jose Gurrutxaga Krosa antolatu du Elgoibar Ikastolak domekarako

10:30ean hasiko dira lasterketak, Kalegoen plazan

Jose Gurrutxaga Krosa jokatuko dute domekan, Elgoibar Ikastolak antolatuta. 10:30ean hasiko dira lasterketak Kalegoen plazan. 2001etik 2006ra jaiotakoaren artean, adinaren eta sexuaren arabera banatu dituzte lasterketak. 12:00etan hasiko dira nagusien lasterketak, eta kasu horretan neskek eta mutilek batera egingo dute korrika. 1997tik 2000ra bitartean jaiotakoek 1.423 metroko ibilbidea izango dute, eta 1996a baino lehen jaiotakoek 3.613 metro egin beharko dituzte korrika. Elgoibarko eta Mendaroko ume zein nagusiek hartu dezakete parte krosean, eta interesatuek 10:30era arte izango dute izena emateko aukera, udaletxeko arkupeetan. Lasterketa guztiak amaitu ostean banatuko dituzte sariak.



Euskadiko senior nesken eskubaloi txapelketa jokatu dute asteburuan Olaizaga kiroldegian

Euskadiko Senior nesken txapelketa jokatu dute gaurtik domekara bitartean Elgoibarko Olaizaga kiroldegian. Lau taldek hartuko dute parte, eta horien artean, Tecnifuelle izango da Sanloren ordezkaria. Etxeberriko Kukullaga, Gasteizko IES Construcción eta Zarauzko Aiala taldeen kontra jokatu beharko dute elgoibartarrek. Domeka eguerdian izango da sari banaketa, eta elgoibartarrek iaz lortutako titulua irabazteko ahalegina egingo dute.

Alcortarekin Salamancara

Alcorta senior mutilen taldeak Salamancan jokatu du apirilko azken asteburuan, eta Sanlok hara joateko irteera antolatu du. Zapatu goizean irtengo da autobusa Elgoibartik, eta domekan itzuliko dira. Bazkari-afariak eta hotela ere prezioan sartuta daude. Sanloko bazkideek 80 euro ordaindu behar dituzte, eta gainerakoek, 90 euro. Norbaitek bere autoan joan nahiko balu, bazkideentzako prezioa 60 eurokoa izango litzakete eta gainerakoentzat, 70 eurokoa. Interesatuek apirilaren 22rako eman beharko dute izena. Ordainketa Laboraleko kontu honetan egin behar da: 3035 0007 25 0070027086. Plazak mugatuak direla aurreratu dute antolatzaileek.



Imanol Alvarez txapeldun Eskoriatzako txirrindulari txapelketan

Joan zen zapatuan jokatu zen infantil mailako Eskoriatzako txirrindulari lasterketa, eta Elgoibarko Imanol Alvarezk irabazi zuen. Denboraldia ondo baino hobeto hasi du elgoibartar gazteak, Oñatiko lasterketa ere berak irabazi zuen-eta orain dela hilabete. Lagun Taldea klubeko Ion Astigarragak bosgarren egin zuen Eskoriatzan.

Ekainaren 7ra arte eman daiteke izena Udako Kirol Campuserako

Ekainaren 24tik uztailaren 19ra izango da campusa

Udako Kirol Campusean izena emateko epea ekainaren 7an amaituko da. Aurten ere bi maila bereiztu dituzte antolatzaileek: 2006 eta 2002 urteen artean jaiotakoek Haurren Campusean parte hartu ahaliko dute, eta 2001etik 1998ra jaiotakoentzako, berriz, goi mailako campusa egongo da, fisikoki maila handiagoa eskatzen duten kirolak praktikatzeko. Ekainaren 24tik uztailaren 19ra bitartean, kirol desberdinak praktikatzeko aukera izango dute partehartzaileek, tituludun zortzi begiralerekin. Patronatuko bazkideek 90,5 euro ordaindu behar dituzte eta gainerakoek 101 euro.



Mirari Aranburuk irabazi du Astungo Free Ride snowboard proba



Joan zen asteburuan jokatu zen Astungo Free Ride txapelketa, eta nesketan Mirari Aranburu elgoibartarrak irabazi zuen. Mutilen kategorian, berriz, Ekaitz Isasi elgoibartarrak bigarren egin zuen. Raka menditik behera eskiatzaileek beren trebezia erakutsi behar izan zuten 700 bat metroko jaitsieran. Estreinakoz hartu zuen parte Mirarik horrelako proba batean eta emaitzarekin pozik agertu da.

Ia ehun motozalek hartu zuten parte Elgoibarko Enduro txapelketan

Urnobitza motoklubak antolatuta Elgoibarko Enduro txapelketa jokatu zuten Mintxeta inguruko berdeguneetan. Ehun bat lagun inguruk hartu zuten parte, eta motor hotsa nagusitu zen inguruko bazterretan. 30 kilometro inguruko ibilbidea egin behar izan zuten partaideek. Antolatzaileak pozik agertu dira probak izandako erantzunarekin, bai ikusleen aldetik eta baita partaideen aldetik ere bai. Saikapenak eta erretratuak www.elgoibarren.net webgunean.



EMAITZAK

FUTBOLA

Haundi 1 – Audio 1 (3. maila)
Elgoibar 2 – Mutriku 4 (Erreg.)
Intxaundi 0 – Elgoibar 3 (Nesk.)
Elgoibar 4 – Orioko 0 (Jub.)
Elgoibar 5 – Aloña Mendi 2 (Kad. A)
Pasaia 4 – ELgoibar 3 (Kad. B)
Urola 4 – Elgoibar 2 (Inf. Txiki)
Amaikak Bat 1 – Elgoibar 1 (Aleb.)

ARETO FUTBOLA

Concepto Egile 3 – Zierbena 3 (2B)

ESKUBALOA

Egia 24 – Alcorta Elg. 22 (sen. mut.)
Tecnifuelle Elg. 29 – Aiala 26 (Sen. nesk.)
Gabaz Elg. 35 – Bergara 22 (Sen. mut.)
Eibar eskubaloia 33 – Pneumax Elg. 26 (Kad. mut.)
Txarriduna Elg. 27 – Tolosa 27 (Kad. mut.)
Eibar eskubaloia 33 – Beristain Elg. 24 (Jub. mut.)
Bankoa Elg. 24 – Egia 16 (Kad. mut.)
Murgil Elg. 35 – Pulpo 8 (Inf. nesk.)
Aloña Mendi B 9 – Cometel Elg. 19 (Inf. nesk.)
Deca Elg. 19 – Bergara 13 (Inf. mut.)
Aloña Mendi 18 – Aterpe Elg. 21 (Inf. nesk.)

PILOTA

Aretxabaleta 14 – Lagunak 22 (Nag.)
Euskal Jolas 7 – Lagunak 22 (Jub.)
Euskal Jolas 22 – Lagunak 20 (Kad.)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 20
11:00 Elgoibar – Aretxabaleta (Inf. txiki.)
12:30 Elgoibar – Behobia (Jub.)
16:30 Elgoibar – Añorga (Kad. B)
Domeka, 21
16:30 Elgoibar – Arrasate (Aleb.)

ESKUBALOA (Kiroldegian)

Barxakua, 19
15:45 Aterpe Elg. – Cometel (Inf. nesk.)
18:15 Aiala A – Kukullaga (Sen. nesk.)
20:00 Tecnifuelle Elg. – IES (Sen. nesk.)
Zapatua, 20
10:15 Deca Elg. – Aloña Mendi (Inf. mut.)
13:00 Pneumax Elg. – Karibe Zaharra (Inf. mut.)
16:00 Aiala A – IES (Sen. nesk.)
17:45 Kukullaga – Tecnifuelle Elg. (Sen. nesk.)
19:30 Alcorta Elg. – Soria (Sen. mut.)
Domeka, 21
10:15 IES – Kukullaga (Sen. nesk.)
12:00 Tecnifuelle Elg. – Aiala (Sen. nesk.)

LANA.....

Eskara

- Emakumea lan bila: nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Esperientziaduna. ☎ **690 925 929**
- Emakumea lanerako prest. Orduka ere bai. ☎ **627 768 684**
- Emakume arduratsua lan bila: nagusiak edo umeak zaintzen egingo nuke lan. Ospitalean ere bai. ☎ **625 895 460**
- Gizonezkoa lan bila: sukaldari laguntzaile, zerbitzari, banatzaile edo nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Esperientziaduna. ☎ **690 861 846**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Ordu-tegi malgua. ☎ **602 068 313**
- Neska euskalduna eskaintzen da kontabilitate eta administrazio lanak egiteko. Orduka edo larunbat goizetan. ☎ **634 627 461**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentzia onak. Papelak legez ditut. ☎ **606 118 964**
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko edo nagusiak zaintzeko. Orduka. ☎ **680 121 252**
- Mutil arduratsua zerbitzari lanak egiteko prest. Esperientzia daukat. Edozein momentutan lanean hasteko prest. ☎ **692 332 871**
- Neska arduratsua lanerako prest: umeak eta nagusiak zaintzen esperientzia daukat. Garbiketarako ere egiten ditut. ☎ **686 052 084**
- Neska lanerako prest: zerbitzari, nagusiak edo umeak zaintzen, sukaldari laguntzaile, garbitzaile... ☎ **608 474 923**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka. ☎ **690 625 929 / 943 531 378**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Etxean nahiz ospitalean. Autoa daukat. ☎ **688 802 701**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Orduka edo asteburuetan. ☎ **609 842 165**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Esperientziaduna. ☎ **606 118 964**

- Emakumea etxeko lanak edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka edo interna.

☎ **628 738 472**

- Neska euskalduna eskaintzen da jantzi dendan lan egiteko. Edozein ordu-tegi. Esperientziaduna.

☎ **618 814 064**

- Gizonezkoa lan bila. Nagusiak zaintzeko prest, orduka edo interno. ☎ **631 361 762**

- Emakumea garbiketa lanerako prest. Interna edo gauez nagusiak zaintzeko prest.

☎ **628 014 327**

- Astelehen eta ostiraletan orduka lan egiteko prest. Masajista, terapeuta edo estetika lanetan.

☎ **617 053 329**

- Neska, lan bila. Nagusiak edo umeak zaintzeko, zerbitzari, sukaldari laguntzaile edota garbiketa lanerako prest. ☎ **608 474 923**

Eskaintza

- Inazio Bereziartua musika eskolak zuzendari administratiboa behar du. Curriculumak bidaltzeko: www.campo-ochandiano.com helbidean sartu. Erreferentzia: 2.493.
- Elgoibarko taberna baterako zerbitzaria behar da, ekainetik irailera bitartean lan egiteko. Interesatuak curriculumak bidali ondorengo helbidera: kamareroa@gmail.com

ETXEBIZITZAK.....

- Valle Ramalesen (Kantabria) txaleta alokatzen dugu urte osoarako. Lau logela, egongela, bi komun. Heziz inguratuta. ☎ **653 733 457**
- Conilen (Cadiz) etxea alokatzen dut. Hondartza ondoan. Bi logela, egongela eta terraza itsasora begira. ☎ **653 733 457**
- Pisua alokatzen dut San Pedroko etxeetan. Bi logela, jangela-egongela. Berogailua eta altzariekin. ☎ **661 030 087**
- Pisua hartuko nuke alokairuan, Elgoibarren. ☎ **686 052 084**
- Etxea alokairuan Elgoibarren. Altzariekin. ☎ **636 233 175**
- Logela hartuko nuke alokairuan, Elgoibarren edo Eibarren. ☎ **615 458 103**

GARAJEAK.....

- Garaje itxia alokairuan Ikastola ondoan. ☎ **669 916 148 / 943 531 648**

KINTOAK.....

- 1958an jaiotako mendaroezko bazkaria egingo dute maiatzaren 25ean Landa jatetxean. Maiatzaren 10erako eman behar da izena Itsasertz arraindegian edo Morroskilo dendan.
 - 1953ko soldadutza kintoezko bazkaria egingo dute maiatzaren 4an Txarriduna jatetxean. 12:30ean meza egingo dute Maalan, hildako kintoen ome-nez, eta 14:30ean izango da bazkaria. Interesatuak Castrillejo tabako denda eman dezakete izena.
 - 1943an jaiotako eta aurten 70 urte egingo dituzten elgoibartarrek bazkaria egingo dute maiatzaren 4an, Sigma jatetxean. Meza izango dute 12:45ean; erretratua aterako dute 13:00etan, gero luntxa izango dute 14:00etan eta 14:30ean bazkalduko dute. Interesatuak 50 euro sartu behar dituzte Laboraleko kontu honetan, apirilaren 30erako: 3035 0007 27 0071126942.
 - 1971n jaiotakoek bazkaria egingo dute maiatzaren 18an Txarridunan. Interesatuak 50 euro sartu beharko dituzte Sabadell Guipuzcoanoko kontu korronte honetan, maiatzaren 8rako: 0081 4235 45 0001047409. 12:30ean batuko dira Maala tabernan.
 - Sigmakoen bazkaria, uztailaren 25ean. Interesatuak 45 euro sartu beharko dituzte La Caixako kontu korronte zenbaki honetan, ekainaren 3rako: 2100 416871 2100263203.
- ## BESTELAKOAK.....
- Sukalderako egurrezko mahai berria salgai. 120x80cm neurrikoa. Luzatu egiten da. Prezio onean. ☎ **943 748 864**
 - Larruzko txaketa marroia galdu dut Pedro Migel Urruzuno kaleko 27 zenbakitik Osasun Zentrora bitartean. ☎ **636 542 819**
 - Basarte Elkarteak hamar bazkide berrirerantzako lekua du. Baldintza Ekonomiko interesgarriak. Informazio gehiago: ☎ **943 742 815**

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

- Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **18€** (alokairua) - **20€** (salmenta). Autoak saltzea: **15€**. Bestelakoak: **8€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **6€ gehiago** ordaindu behar dira.

- **BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:** Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **12€** (alokairua) - **15€** (salmenta). Autoak saltzea: **12€**. Bestelakoak: **6€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **5€ gehiago** ordaindu behar dira.



• Zorionak, **Nahia**, Elgoibarko birramona eta birraitona, amama, osaba-izeba eta lehengusuen partez. Askio maite zaitugu.



• Zorionak, **Unax**, igandean 9 urte egingo dituzulako, korrika eta korrika. Maddi, Ane eta familiakoen partez. Ondo pasa eguna.



• Zorionak, **Eider!** Bihar zure eguna! 11 urte! Oso ondo pasa eta muxuak, familiakoen partez.



• Zorionak, **printzesa**, zure bosgarren urtebetetzean. Muxu bat etxekoan eta laguntxoan partez.



• Zorionak, **txapel-dun!** Ondo pasa eguna eta jarraitu jatorjator. Etxekoak eta lagunak.



• Zorionak, **Naroa**, bihar 10 urte egingo dituzulako. Etxekoan, eta bereziki, ahizpa Nahiaren partez. Muxu handi bat.



• Zorionak, **Nere**, bihar 6 urte potolo beteko dituzulako. Maitte zaittugun guztion partez. Patxo bat.



• Zorionak, **Gadea!** Gaur gure maitiak 3 urte! Ondo pasa txokolatadan eta muxu, etxekoan eta bereziki, Marenen partez.



• Zorionak gure printzesatxo **Olatzi**, bere laugarren urtebetetzean. Familiakoen partez.



• Zorionak, **Ihintza**, bihar 2 urte egingo dituzulako. Kandlei putz egiteko prest? Primeran pasatuko dugu. Muxu asko.



• Zorionak, **Markel**, atzo 8 urte bete zenituelako. Muxu asko, familiakoen partez.



• Zorionak, **Onintza**, familiakoan, eta bereziki, Eiderren partez. Gaur oso ondo pasatuko dugu!



• Zorionak, **Nastia**, zure 14. urtebetetzean, etxekoan, eta bereziki, Paul eta Lararen partez. Poz-pozik gaude ekaina iristeko.



• Zorionak, **Amaia!** 4 urte beteko dituzulako igandean. Muxu handi bat familiakoan eta bereziki Oinatz, Markel eta Gouiuren partez.



• Zorionak, **Elene**, apirilaren 11n 2 urte egin zenituelako. Gure etxeko printzesari, muxu bat.



• Apirilaren 20an urrezko ezteiak, **aittita eta amama, Agustin eta Justa**. Muxuak eta zorionak biloben partetik (Ane, Unai, Irene eta Ibon). Egunderra pasatu!



• Zorionak, **Iker eta Maddi**, apirilaren 12an eta 22an 34 eta 7 urte! Muxu pila bat biontzako, etxekoan, eta bereziki, Jokinen partez.



• Zorionak, **aittita Constantino eta Elia Maria!** Muxu handi bat familiakoan, eta bereziki, amaren partez.



• Zorionak, **Lucia eta Jon**, zuen zortzigarren urtebetetzean. Muxu handi bat etxeko guztion partez.



• Zorionak, **Hodei eta aittita Jose!** Ondo-ondo pasa zuen egunean.




• Zorionak **Lea eta Malen** gure etxeko sorgintxoiei urtebete egin dutelako. Bereziki Juneren partez.



**Apirilak 25, osteguna,
BUZTIN TAILERRA!
17:00etatik aurrera.**

**Apirilaren 26an
Gaztelekuko
III. PINTXO LEHIAKETA!
Izenematea
apirilaren 25era arte.**



19 barixakua

Musika

18:30 Kale Kantariak

Kale Kantarien entsegua Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Musika

19:30 Kontzertua

Bibolin eta piano kontzertua musika eskolako auditorioan.

Zine-forum

21:30 'Conociendo a Jane Austen'

Loredi Salegik dinamizatuko du. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

20 zapatua

Ate irekiak

11:00 Ingeniaritza Eskolako informazio saioa

Ingeniaritza Dualaren informazioa emango dute IMHn.

21 domeka

Kirola

10:30 Jose Gurrutxaga Haur Krosa

Kalegoen plazan hasiko dira lasterketak eta herriko kaleetan zehar egingo dute korrika.

26 barixakua

Erakusketa

18:30 Argazki erakusketa

Gorka Salmeron eta Oscar Pereira argazkilarien lanak jarriko dituzte ikusgai Kultur Etxean, maiatzaren 11ra arte.

Antzerkia

20:30 'Lurra astinduz'

Durangoko Karrika antzerki eskolak aurkeztuko du antzezlan, Herriko Antzokian.

Musika

23:00 Kontzertua

Desván del macho taldearen kontzertua antolatu du Sinuosek. Kultur Etxeko sotoan.

ZWEA

'Las flores de la guerra'

19, barixakua: 22:15
20, zapatua: 19:00/22:15
21, domeka: 19:00
22, astelehena: 21:30



Zuzendaria. Zhang Yimou. Txina, 2011. Drama. Iraupena: 146 min. Aktoreak: Christian Bale (John Miller), Ni Ni (Yu Mo), Shigeko Kobayashi (Kato), Dawei Tong (LJ), Paul Schneider.

'Yoko'

21, domeka: 16:30



Zuzendaria. Franziska Buch. Alemania, Austria eta Suedia, 2012. 90 min. Komedia, fantasia. Aktoreak: Jamie Bick (Pia), Hoang Dang-Vu, Friedrich Heine, Tobias Moretti (Thor), Lilly Reulein.

'Searching for sugar man'

(Ongarri zinekluba)
25, eguena: 21:30



Zuzendaria. Malik Bendjelloul. Suedia eta Erresuma Batua, 2012. Iraupena: 86 min. Dokumentala, musikala.

OKINDEGIA

21 domeka:
IBARRENEA



BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

Fernandez

Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)- Tel: 943 756 142

Ibañez

Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384

GUARDIAK

Egunez

9:00 - 22:00

19 Garitaonandia
20 Yudego


21 Yudego
22 Fernandez
23 Yudego
24 Zabaleta
25 Barrenetxea
26 Ibañez

Gauetz

22:00 - 9:00

Garitaonandia
Yudego

Yudego
Garitaonandia
Yudego
Etxeberria
Barrenetxea
Barrenetxea



Eskertzak eta urteurrenak

ESKERTZA



FRANCISCA ANSOLA AGIRREGOMEZKORTA

2013ko apirilaren 16an hil zen, 93 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA



ROBERTO SOL ORIA

2013ko apirilaren 15en hil zen, 81 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



II. URTEURRENA




EDURNE GABILONDO AIZPITARTE

“Gure ondoan ez zaude, baina bihotzean zaitugu”

Maitasunez, Amaia, Josu, Lurdes eta Jesus

II. URTEURRENA

EDURNE GABILONDO AIZPITARTE



*Zure begiek ene maitia
badute biek dir-dir eztia
zeruko lore miresgarriak
izarren pare zoragarriak.
Maitasunez, etxekoak.*

*II. urteurreneko meza domekan,
apirilaren 21ean, izango da goizeko 11:30ean
Elgoibarko San Bartolome parrokian.
Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.*



ATXUTXIAN TXITXIKA

Eguna: apirilak 27, zapatua

Ordua: 11:30 - 13:30

Lekua: Kalegoen Plazan

Zeinentzat: 3-5 urte bitarteko haurrentzat

